

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

## 19

*AGINDUA, 2013ko abenduaren 18koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailean hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdia ebazten duena.*

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 46.3.c) artikuluan agindutakoaren arabera eta Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailean hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdia egin zuen Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun sailburuaren 2013ko azaroaren 6ko Aginduaren hirugarren oinarrian agindutakoarekin bat etorritik (2013ko azaroaren 14ko EHAA), hau

#### XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– M.<sup>a</sup> Carmen Aguiar Ruiz de Gauna andrea Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako eta Europar Politiketarako Zuzendaritzako goi-kargudunaren idazkari izendatzea (kodea: 520010, dotazioa: 53; destino-osagarriaren maila: 18, berariazko osagarria: VI - A).

Bigarrena.– Izendapen horrek 2013ko abenduaren 20tik aurrera izango ditu ekonomia- eta administrazio-ondorioak.

Hirugarrena.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari. Beraz, beraren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke agindua eman zuen organoari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko abenduaren 18a.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua,  
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.